



**AKTEA**  
**BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**  
(2024-03-21/03)

|                           |   |
|---------------------------|---|
| <b>Bilkuraren izaera:</b> | Ohikoa  |
| <b>Deialdia:</b>          | 1. deialdia                                     |
| <b>Data:</b>              | 2024-03-21                                      |
| <b>Lekua:</b>             | Irakaskintza kalea 14-16 (Udaletxearen egoitza) |
| <b>Hasiera-ordua:</b>     | 18:00   |
| <b>Amaiera-ordua:</b>     | 19:30   |

**Bertaratuak**

**Alkate-Presidentea:** Nadia Neme Shomaly (EH BILDU)

**Zinegotziak:**

|   |   |
|---|---|
| Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)            | Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)            |
| Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)     | Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)             |
| Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)       | Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)               |
| Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)      | Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)           |
| Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)             | Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)          |
| Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN) | Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV) |
| Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)           |   |
| Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)              |   |

**Idazkaria:** Jurdana Uriarte Lejarraga



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



**Bertaratu ez direnak:**

Aritz Abaroa Cantuariense (EAJ-PNV)

Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)

**Aztergaiak**

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2024-02-29 OB (02)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Bermeoko Udaleko diru laguntzen balorazio batzordea eratzea.
- 4.- 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako mahaikideak izendatzea.
- 5.- EH Bilduk eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako "Gernika Palestina deialdi herritarra" izeneko mozioa onartzea.
- 6.- EH Bilduk eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako "Guggenheim Urdaibai Stop" izeneko mozioa onartzea.
- 7.- 2024ko 764-1163 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 8.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2024ko otsailaren 27 eta martxoaren 5 eta 11ko erabakiak.
- 9.- Eskari eta itaunak.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

**1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2024-02-29 OB (02)**

Batzarkideek 2024ko otsailaren 29ko 02/2024 akta aho batez onartzea erabaki dute.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



## 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukatela.

## 3.- BERMEOKO UDALEKO DIRU LAGUNTZEN BALORAZIO BATZORDEA ERATZEA.

### Xedea

Bermeoko Udaleko diru laguntzak emateko, balorazio batzordea eratzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: 2023ko apirilaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko diru laguntzen oinarri zehatzak.

Hirugarrena: Balorazio batzordeko kideen eraketan akats bat antzeman da eta zuzendu beharra egon da.

Laugarrena: 2023ko abuztuaren 2ko Osoko Bilkuran, Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko diru laguntzen oinarri zehatzen balorazio batzordearen eraketaren aldaketa onartu da eta 2024ko otsailaren 20an argitaratu da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, onartutako oinarrietan honela esaten: "Diru laguntzen balorazio batzordea honako hauek osatuko dute: udalean dauden alderdietako kide banak eta Kultura teknikariak edo ordezkioak."

Bosgarrena: Balorazio batzordea eratu egin behar da eta kideak izendatu egin behar dira. Balorazio batzordea udalean bakarria izango da edozein diru laguntzaren azterketa egiteko eta beti instruktorea den teknikariak eta alderdi



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009

Fecha: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



bakoitzeko kide batez eraturik egongo da, azken hauek eta ordezkioak izendatu egin behar dira.

### Argudioak

Bakarra: Oinarri Espezifikoak onartzeko ahalmenari jagokonez, Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzan 7/1985 Legearen 22.2.d) artikulua bat, Osoko Bilkureari jagoko.

### Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko Udaleko diru laguntzen balorazio batzordea honako kide hauek osotzea onartzea:

- EH Bildu: Endika Etxebarria Telleria jauna eta ordezkioa Bittor Uriarte Anasagasti jauna
- EAJ: Idoia Platas Arenaza andrea eta ordezkioa Alazne Zumeta Garro andrea
- GUZAN: Xabier Ortuzar Butron jauna eta ordezkioa Maite Caruezo Ugalde andrea
- Idazkaria: Diru laguntza lerro bakoitzaren instruktorea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean erabaki hau argitaratzea.

## 4.- 2024KO APIRILAREN 21EKO EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEA.

### Xedea

2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako mahaikideen izendapena onartzea.

### Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



**Bakarra:** 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako mahaikideen zozketa egitea titullarrak eta ordezkioak izendatzeko INEren IDA Celec aplikazioaren bitartez.

### Argudioak

**Lehenengoa:** Estatistikako Institutu Nazionalak emandako IDA Celec aplikazio informatikoak "intro" botoia klikatuta mahai bakoitza eratzea ahalbidetzen du ausazko prozesamendu bidez, HAOLoren 26. artikuluan ezarritakoarekin bat eta HAOLoren 27.1 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

**Bigarrena:** Hauteskunde-araubide Orokorreko Legearekin bat, udalerriko 21 mahaietako Hauteskunde Mahai bakoitza eratzeko Presidente, Lehenengo Bokal eta Bigarren Bokal karguetarako titular bat eta ordezkio bi behar dira. Programak kargu bakoitzeko hamalau hautesleraino izendatzea ahalbidetzen du eta baita, berriz ere zozketa publikorik egin beharrik egon gabe, mahai baten osagaitza editatzeko kargu zehatz bateko titular edo ordezkoren bat ordezkatu beharko balitz, bigarrenetik aurrerako ordezkioak ordezkio moduan geratzea ere.

### Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, onartzea erabaki du:

**LEHENENGOA:** 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako mahaikideen zozketa egitea onartzea eta titullarrak eta ordezkioak izendatzea onartzea INEren IDA Celec aplikazioaren bitartez.

**BIGARRENA:** Gernikako Hauteskunde-Batzordeari mahai kideak nortzuk diren jakinaraztea eta interesdunei izendapenak jakinaraztea.

**HIRUGARRENA:** Gogorazotea abenduaren 5eko 3/2018 Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Lege Organikoarekin bat, mahai kide titular eta ordezkioen datu pertsonalak babestu behar direla.

## 5.- EH BILDUK ETA GUZAN UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO "GERNIKA PALESTINA DEIALDI HERRITARRA" IZENENKO MOZIOA ONARTZEA.

Alkateak mozioa irakurri du:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



## GERNIKA PALESTINA DEIALDI HERRITARRA

“Dinamika honetara bildu garenok, Palestinaren egoerari kezka eta amorrus begiratzen diogun norbanakoak gara, herritarrak. Bat egitera eraman gaituen kezka eta amorru hori herritar gehienek partekatzen dutela uste dugu. Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, ezinbestekoa irizten diogu Bermeoko Udalak herritar gehienon kezka eta amorru hori bere egin, eta egunegun Israelgo Estatu egiten ari den nazioarteko zuzenbidearen urratze larria salatu dezan.

### ZIOEN AZALPENA

Estatu sionistak Palestina erasotzeko hartutako erabakiaren ondorioz, joan den urriaren 7tik milaka pertsona hil ditu, ehunka zauritu, eta asko eta asko alde egitera derrigortzen ari dira, bonbetatik ihesi leku seguruago batera heltzeko aukerarik gabe,

Israelek mugak itxi eta blokeo egoera mantentzen duelako.

Urriaren 7az geroztik, Israelek 27.000 palestinar baino gehiago hil ditu, 10.000 haurrak dira. Israel ehundik gora haur hiltzen ari da egunero Gazako zerrendan; hilabeteen, 2019az geroztik munduan izandako gatasketan denera hildako haurren kopurua gainditu du Israelgo Estatuak Gazako zerrendan.

Israelgo Estatuak herritarren kontra hasitako oldarra indiskriminatua justifikaziorik gabeko eraso da, inoizko larriena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena, egonkortasuna eta segurtasun globala arriskuan jartzen dituen.

Horregatik guztiagatik, Bermeoko Udaleko alderdi politikoei honako hau onartu dezatela eskatzen diegu:

1. Bermeoko Udalak irmotasun osoz arbuiatzen ditu Israelgo Estatuak Gazako zerrendan zein Palestinako beste lurraldeetan egiten ari den ekintza militarrik, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria dakartenak. Justifikaziorik gabeko eraso da, eta herrialdearen segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen ditu.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009

Fecha: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



2. Bermeoko Udalak erasoak berehala gelditzeko eskatzen du, eta Israelgo armada Palestinatik erabat erretiratzeko. Palestinaren subiranotasunerako eskubide osoa eta lurralde-osotasuna erabat babesten eta errespetatzen ditu.
3. Bermeoko Udalak Palestinari eta hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik.
4. Bermeoko Udalak Europar Batasunari eskatzen dio beharrezko laguntza finantzarioa eta humanitarioa eskaintzeko Palestinari eta Palestinako herriari, nazioarteko komunitate osoarekin koordinatuta. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen du. Israelgo Estatuari gogorazten dio nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra.
5. Europako Batasunari, Espainiako Estatuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, ahalik eta azkarren antolatzeko, eraso militar horretatik erator daitezkeen errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko. Eta agintari eskudunen esku jartzen du harrera espazio bat , iragaitzazko migratzaileei zuzendua, behar izanez gero Palestinatik iristen diren errefuxiatu horiei harrera emateko. Halaber, konpromisoa hartzen du harrera duina bermatuko duten espazioak eskaintzeko haur palestinarrei.
6. Bermeoko Udalak irmo eskatzen dio Israelgo Estatuari, nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.
7. Bermeoko Udalak Europako Batasunari eskatzen dio ahalegin handiagoa egin dezala kudeaketa diplomatikoen bidez deseskalatzea bultzatzeko eta bakeari eusteko.
8. Bermeoko Udalak Larrialdi Humanitariorako dirulaguntza bat onartuko du, tokian bertan lanean ari den erakunderen batentzat Palestinara modu seguruan helduko dela bermatu daitekeen unean.
9. Bermeoko Udalak konpromisoa hartzen du Israelgo jatorria duten pertsona elkarte edo eragileekin kirol, kultur, edota bestelako izaera duen ekitaldirik ez antolatzeko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



10. Bermeoko Udalak bat egiten du Israelekiko boikot ekonomikorako deialdiarekin eta konpromisoa hartzen du Israelgo jatorria duten produktu edota kontrataziorik ez egiteko, ez israeldarren zigor modura, Israelgo Estatuak Gazako zerrendaren zein Palestinako beste eremuen aurkako erasoak bertan behera utzi ditzan, okupazioa amaitu dezan, apartheid sistema eraitsi dezan, eta errefuxiatu palestinarren itzulera eskubidea berma dezan presio neurri gisa baizik.

11. Europako Batasunari, Nazio Batuen Erakundeari eta bestelako nazioarteko eragileei Israeli laguntza humanitarioari sarbidea emateko mugak berehala zabal ditzan exijitzeko eskatuko die Bermeoko Udalak.

12. Bermeoko Udalak Palestinako bandera balkoi nagusian jartzeko konpromisoa hartzen du, Palestinako herriarekiko elkartasun keinu gisa.

13. Bermeoko Udalak Bermeoko Gernika-Palestina herri ekimenak antolatuko dituen ekintzekin bat egingo du.”

Kepa Zumetak adierazi du ados daudela Israelen erantzuna neurrigabea dela gatazka honetan baina Hamásen eragindako erahilketak ere gaitzetsi behar direla, besteak beste, euskaldun bat hiltzea. Esan du 5. eta 8. puntuekin ez dutela bat egiten, batetik, irteten diren errefuxiatuak bide diplomatikotik egiten direlako; bestetik, Eusko Jaurlaritzak krisi mahaia eratu duelako eta hainbat neurri hartu dituelako. Gaineratu du harrerari eta diru laguntzei dagokionez, goi mailako erakundeak tresnak dauzkatela eta erabiltzen ari direla. 9. eta 10. puntuei dagokionez dio ezin dela biztanleria zibila kastiga gobernarien jardueragatik, esan du boikotak biktimizazio bikoitza ekarriko lukeela, eta hori ez dela formula.

Kepa Zumetak laburbildu du urriaren 7an Israelgo biztanleriari egindako eraso gaitzestea eskatzen dutela eta salatu nahi dutela Israelen erantzuna neurrigabea dela eta nazioarteko zuzenbidea urratsen duela. Gaineratu du su etena eskatu behar dela eta uste dutela korredore humanitarioetara jo behar dela, nazioarteko ikuskapenarekin. Hori guztia esanda aurreratu du mozioaren kontra bozkatuko dutela.

Alkateak erantzun dio benetako errefuxiatuak direla Palestinako Palestinarrak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2





Esan du aukerak daudela baina borondate falta dagoela. Diru-laguntza humanitarioak ondo daudela adierazi du baina ez dela nahikoa, gehiago behar dela. Esan du Donostian egon den manifestaldian adierazi dela hitzetatik ekintzetara pasatu behar dela eta euren alderdia bertan egon dela, baina aurrean dutenean neurria ezetza ematen dutela. Esan du eurentzako garrantzitsua dela hitzetatik pasatzea eta benetako erantzukizuna hartzea. Adierazi du ez daudela Israeleko zibilen kontra, baizik eta estatuaren kontra.

Xabier Ortuzarrek esan du triste jarri diola EAJren interbentzioak, ez dela izan epela eta ez duela ulertu argudiatutakoa.

Udal Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, “Gernika Palestina deialdi herritarra” mozioa, gehiengo osoz, EH Bilduren (5) eta GUZANen (4) aldeko botoekin eta EAJ-PNVren (8) kontrako botoekin, onartzea erabaki du.

## 6.- EH BILDUK ETA GUZAN UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO “GUGGENHEIM URDAIBAI STOP” IZENEN MOZIOA ONARTZEA.

Alkateak mozioa irakurri du.



### “UDAL-MOZIOA

Udal-mozio hau Guggenheim Urdaibai proiektua dela-eta aurkezten da. Batetik, bertan behera uzteko berori bideragarri bihurtzeko abiarazi diren lege- eta normatiba-aldaketa nahiz moldaketa guztiak. Bestetik, benetako gobernantza parte-hartzailean oinarritutako estrategiak bultzatzeko Biosfera Erreserba den eskualde honetan, «bai ala bai» estilo inposatzailea baztertuz.

### ZIOEN ADIERAZPENA

#### 1. Urdaibai Biosfera Erreserba

Urdaibaiko Biosfera Erreserba, Euskadin dagoen **Biosfera Erreserba bakarra da**. Biosfera-erreserbak UNESCOk Man & Biosphere programaren barruan sorturiko figurak dira, eta hiru helburu dituzte: naturaren **kontserbazioa**, **garapen**



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009

Fecha: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



**jasangarria eta laguntza logistikoa**, ezagutza zientifikora eta jasangarritasunerako hezkuntzara zuzendua. Hala, esperimentazio-eremu eta esperientzia-laborategi gisa konfiguratzen dira, haietan bizi direnen bizi-baldintzak hobetzeko.

**UNESCO-k** 1984an izendatu zuen Biosfera Erreserba, eta 22.000 hektarea hartzen ditu, Oka ibaiaren arro hidrografikoa, hain zuzen ere. Labarrez, mendiz, hondartzaz, ibaiz eta lurpeko urez osatutako puzzlea da; izaki bizidunetz betetako paisaia ikusgarria. Horrekin batera, balio arkeologiko, historiko, etnografiko eta kultural nabarmenak ditu.

1989. urtean, Eusko Jaurlaritzak aho batez onartu zuen Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzko Legea, «izadiaren, zientziaren, hezkuntzaren, kulturaren, aise-aldien eta gizarte-ekonomien aldeetatik duen garrantziagatik bere onean iraun dezan babesa emateko eta bere oneratzeko laguntzeko». Garapena bermatzeko tresna Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) da.

Biosfera Erreserba guztiak bezala, Urdaibaikoa ere 3 eremutan banatuta dago: nukleoak, nukleoa babesteko zonak eta trantsizio-zonak.

**Nukleoetan natur ingurunea babestea da lehentasuna.** Urdaibain 4 nukleo-eremu ditugu: estuarioa eta kostaldeko lerroa, artadi kantauriarrak, ibai-sarea eta aztarnategi arkeologikoak. Estuarioa eta kostaldea, artadiak eta ibai-sarea **Natura 2000 sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak** dira. Horrez gain, estuarioa eta kostaldea **Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE)** ere badira, eta Oka itsasadarra, 1993tik, **RAMSAR hezegunea** ere bada.

**Nukleoa babesteko eremuak** (nukleoa inguratzen dute edo harekin muga egiten dute): hauetan **baimenduta** daude Ekologiaren ikuspuntutik **bateragarriak eta arrazoizkoak diren jarduerak**. **Trantsizio-eremuak**: zona hauetan, **ikuspegi soziokulturaletik zein ekologikotik jasangarriak** diren jarduerak egin daitezke.

Esan bezala, Biosfera Erreserbak esperimentazio-espazioak dira, **laborategi ezin egokiagoak garapen jasangarriko ereduak ezartzeko, jardunbide egokiak esportatzeko eta probatzeko**. Hori bermatzeko, Jarduera Sozioekonomikoen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua (JSEGE) dugu. Programa hori Urdaibaiko Legea garatzeko tresna bat da eta bere helburua tokiko ekoizpen-sektoreen jarduerak bultzatzea, orientatzea eta koordinatzea da.

## 2. Urdaibaiko Biosfera Erreserba mehatxupean

Azken urteotan, 2008ko ideia bati helduz, gure administrazioek eta Guggenheim Bilbao Patronatuak Bilboko museoa eskualde honetara hedatzea proiektatu dute, batez ere **turismo masiboa erakartzeko** asmoz.

Proiektu hori eskualdearen erronkei, premiei eta parte-hartzeari bizkarra emanez eta ingurumenaren babesa bigarren mailan utziz planteatu denez, babes bereziko eremuen zaurgarritasuna larriagotuko litzateke. **Hori indarrean dauden legeak eskuan hartuta, erabat onartezina da.**

Turismo-azpiegitura handi hori eraikitzeak Urdaibairen osotasun ekologikoari eragingo dio, eta ez hori bakarrik: haren esentzia ere arriskuan jarriko du, eta bertan bizi garen pertsonoi ere kalte handiak ekarriko dizkigu; izan ere, turista oldeak larriki eragingo die mugikortasunari, etxebizitzaren prezioei, eguneroko bizimoduari, gure hizkuntzari, gure kulturari eta gure bazter eta txokoez estutasunik gabe gozatzeko aukerari.

Izan ere, 2019ko Eusko Jaurlaritzaren azterketa batek argi erakusten zuen eskualdeak turismo-zama handia pairatzen duela. Era berean, 2021eko azterketa sakon batek estuarioak presio eta inpaktu handiak jasotzen dituela ondorioztatzen zuen, eta horregatik hegaztiak kasu era askotako eragozpenen biktimak direla. Gutxi balitz, 2023ko abenduan, Urremendik (landa garapenerako elkartea) publiko egin dituen datuen arabera, 2023an Biosfera Erreserbako ibilbide balizatuek 200.000 bisitari izan dituzte. Horietatik 120.000 gutxienez zonalde zaurgarrietatik ibili dira. Beraz, gaur egun jasate-ahalmena guztiz gaindituta duen eremua are gehiago kaltetzea lekarke Gernika eta Murueta bitartean ezarri nahi den proiektu museistikoak.

Aldundiak dio proiektua gauzatzeko zenbait oztopo normatibo gainditu eta egokitu behar direla (LZP, Gernika-Lumo, Forua ta Muruetako HAPOak, kostaldeko jabaria, plan bereziak edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Erabilpenerako eta



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009

Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



Kudeaketarako egitamu gidaria...). Hala, normaltasun osoz adierazten digute Aldundiak normatiba betearaztea baztertu duela, interes pribatuen aldera makurtzeko. Espainiako Gobernuko MITECOrekin sinatutako hitzarmenean ere, diru publikoa bideratzen da enpresa pribatu batek eragindako kutsadura garbitzera eta gainera, inguruaren errestaurazioan eragingo luketen ekintza hauek museoak eraikitzearekin lotzen dituzte zuzenean. Argi esan beharra dago: lurzorua deskontaminatzeko edo padura berreskuratzeko ez da beharrezkoa museoak eraikitzea, eta are gutxiago diru publikoa erabiltzea ekimen pribatu baterako.

Esan bezala, eskualdeak benetako beharrianak ditu eta erantzun bat eman behar zaie, beti ere aipatutako ezaugarri guztiak kontutan izanez eta indarrean dagoen marko legala errespetatuz. Bada garaia pertsonak estrategia guztien erdigunean jartzeko. UNESCOren izendapenetik 39 urte pasatu diren arren, gutxi izan dira urte horietan eskualdean egin diren inbertsioak. Berebiziko premiak dira eskualdeko egoera sozioekonomikoa suspertzearekin batera, saneamendua behingoz amaitzea, agorraldiko ur defizitari irtenbidea ematea, lehenengo sektorea suspertzea, nagusion zaintza-sare publikoa indartzea, elikadura-subirotasunari bultzada ematea, garraio publikoaren sarea indartzea, lehen mailako arreta medikua indartzea, ospitalearen funtzioak behingoz osatzea, mehatxupean dauden ekosistemak errestauratzea eta basogintzaren sektorea hiritarren mesederako bideratzea, besteak beste.

XXI. mendeko gizarte demokratiko batean denon artean egin beharko genuke eskualdearen diagnostiko sakona, gobernantza eredugarria aplikatuz, eta herritarren parte-hartze zuzenarekin, gure eskualderako erabakiak hartzeko.

Alabaina, kalte posibleak kuantifikatu ez dituen proiektua inposatu nahi digute, inolako plangintzarik ez duena, inolako alternatibarik eskaintzen ez duena. Inposizioaren errezeta eta propaganda erabiliz diruaren irudia erdigunean jartzen duena, bertakoon etorkizuna alboratuz.

Horregatik guztiagatik, **MOZIO HAU** aurkezten dugu:



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009

Fecha: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



1.- Guggenheim Urdaibai proiektua behin betiko alboratu dezatela eskatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Guggenheim Bilbao Museo Fundazioari.


2.- Eskualdea suspertzeko plan sozioekonomiko serio bat egiteko konpromisoa hartzeko, diagnostiko erreal batekin eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren markoan, herritarrak eta ingurumena lehenetsiz. Gainera, eredu inposatzaileetatik urruntzea beste gobernantza-eredu bati heltzeko, udalak protagonista direla, eskualdeko eragileekin batera eta partaidetza publikoa bultzatuz.”

Alkateak esan du berak daukan ahalmenarekin aukera emango diola Guggenheim Urdaibai Stop elkarteko ordezkariari bere iritzia emateko.

Elkarteko kide batek azalpenak eman ditu.

Idoia Platasek adierazi du mozioan jasotako hainbat gairen eta daturen inguruko puntualizazioak egin nahi dituztela. Aldaketa normatiboaren inguruan esan du planak aldatzea udalaren ekintza arruntean sartzen dela, adibide moduan jarri du Bermeoko Itsasbegiko parkinga egiteko planean egin behar den aldaketa. Esan du kasu honetan Muruetan lur industrialetik ekipamendura pasako dela eta planen aldaketak prozesu bermatzaileak direla, hainbat erakundeen txostenak behar direla eta herritarren parte hartzea ere. Adierazi du egingo den aldaketak ez diola ukitzen Urdaibaiko beste puntuei, soilik ontziolaren inguruari. Egingo diren eraikuntzen inguruan, esan du Gernikako kasuan 17.500 m<sup>2</sup>ko partzela dela, aurri egoeran dagoena, eta partzela erdia sorkuntza kulturalera, inbestigaziora, artera, ekologiarara bideratuko dela eta beste erdia berroneratze ambiental eta paisajistikora. Muruetako kasuan, adierazi du ontziolaren lur industrialak 42.384m<sup>2</sup> okupatzen dutela gaur egun eta horietatik .7.400m<sup>2</sup> erabiliko dela natural integratuko den eraikina eraikitzen eta beste guztia berroneratze ambiental eta paisajistikora bideratuko dela.

Idoia Platasek esan du Espainiako ministeriotik 40 milioi euro ekartzea lortu dela berroneratze ambientalerako. Adierazi du ez dela legitimoa esatea ingurumena bigarren mailan uzten dela, proiektuaren helburu nagusia hori denean. Gaineratu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



du, mozioan turismo masiboari buruz hitz egiten dela, baina bisitari kopuru mugatua aurreikusten dela, gehienez, 150.000 bisitari urtean, kopururik altuena ekainetik irailera, %60-%70 tartearekin. Esan du ez dela baimenduko Muruetara kotxe pribatuan hurbiltzea, garraiobideak, txirrindua eta oinezko bideak lehenetsiz. Esan du mozioan eskatzen dela plan integrala egitea eskualderako, eta dagoeneko BFAak eta EJak onartu dutela plan hori lantzea eta ez dagoela zertan berriz eskatu behar. Laburbildu du Guggenheim Urdaibai eskualdea suspertzen lagunduko duen proiektu moduan ulertu behar dela, esan du prozesu bermatzailea izango dela, kontrol berezia izango duena, herritarrek parte hartzeko bideak emango dituen eta aurri industrialak ekipamendua bihurtuko duela. Adierazi du guzti horregatik ez duela bat egiten mozioarekin.

Zigor Uriondok esan du ezin direla maila berean jarri Itsasbegiko lurak UNESCOk aitortuta duen gune batekin. Adierazi du erabilera industrialaren inguruan egingo dena ez dela ekologikoa eta esan du gune batzuk babestu behar direla balio berezia dutelako. Adierazi du gizakiak egindako bide artifiziala egingo dela. Gaineratu du trenez joateko bertara lehenengo hegazkinez heldu behar direla eta hegazkin gehiago etortzeko neurria dela. Esan du jarduera ekonomikoa handituko dela, baina ostalaritza estazionala sustatu nahi dela, jada hemengo gizarteak nahi ez duen lana. Amaitzeko adierazi du partaidetza egin behar dela, herritarrei galdetzeko nahi badute edo ez, eta momentu honetan ez dagoela horrelako partaidetzarik.

Idoia Platasek esan du Ontziolaren lur-zati handi bat jabearena dela eta mantendu ahal dela ez ontziola moduan, baina bai beste erabilera batzuetarako. Bideen kontuan esan du gaur egun ere badagoela eta ez dagoela egoera onean. Jarduera ekonomikoaren inguruan esan du ez dagoela planteatuta bakarrik museo moduan, baizik eta baita artistak inbestigaziora dedikatzeke leku moduan, hau da, beste eratako jarduera ekonomikorik sustatu nahi direla. Adierazi du batzuk mehatxu moduan ikusten dutela eta beste batzuk aukera moduan.

Victor Uriartek adierazi du adituek salatu dutela instituzioen aldetik zelako desleialtasuna egon den Busturialdearekin. Esan du ez dutela mehatxu moduan ikusten, baizik eta eredu diferenteak direla, euren ustez herritarrentzako egin



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009

Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



behar delako eta herritarrak kontuan izan behar direla horrelako egitura muntatzeko.

Udal Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, "Gernika Palestina deialdi herritarra" mozioa, gehiengo osoz, EH Bilduren (5) eta GUZANen (4) aldeko botoekin eta EAJ-PNVren (8) kontrako botoekin, onartzea erabaki du.

## 7.- 2024KO 764-1163 ZENBAKIDUN ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

### DEKRETUA DESKRIBAPENA

|     |  |
|-----|--|
| 764 | DIRU ITZULKETA   |
| 765 | 24/033 OBRA LIZENTZIA ESKARIA  |
| 766 | 24/042 OBRA LIZENTZIA ESKARIA  |
| 767 | 24/041 OBRA LIZENTZIA ESKARIA  |
| 768 | 24/039 OBRA LIZENTZIA ESKARIA  |
| 769 | 24/038 OBRA LIZENTZIA ESKARIA  |
| 770 | OTSAILAK 23 BOZERAMAILEEN DEIALDIA   |
| 771 | 2024 003 FAKTUREN ERLAZIOA   |
| 772 | 2024. URTEKO EZ OHIKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA. INFORMATIKARIA                                       |
| 773 | EUROPEAR ERKIDEGOKOAK EZ DIRAN ATZERRITAR ERRESIDENTZIA BAIMENA GAURKOTZEA 723 FITXATEGIA          |
| 774 | EUROPEAR ERKIDEGOKOAK EZ DIRAN ATZERRITAR ERRESIDENTZIA KADUZITATEAK 623 FITXATEGIA                |
| 775 | EUROPEAR ERKIDEGOKOAK EZ DIRAN ATZERRITAR ERRESIDENTZIA BAIMENA GAURKOTZEA. H48017IA.523           |
| 776 | EUROPEAR ERKIDEGOKOAK EZ DIRAN ATZERRITAR ERRESIDENTZIA BAIMENA GAURKOTZEA. H48017IA.423           |
| 777 | 2021-457 ALKATETZA DEKRETUA ZUZENTZEA. GOUP DESEGITEAREN ONDORIOZ LAN POLTSAK UDALEAN INTEGRATZEA. |
| 778 | KIROL ERAIKINETAN KONPONKETA TXIKIAK EGITEKO BURDINDEGIKO MATERIALA EROSTEA                        |
| 779 | ADIN TXIKIAREN ESKU HARTZE ESPEDIENTEA   |
| 780 | ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ESKABIDEA   |
| 781 | EGUNEKO ARRETA ZERBITZUKO SARRERA ESKARIA  |
| 782 | ERRENTA SAILEKO GAINBALIOAK 3/2024   |
| 783 | LAN METAKETAGATIK ARKITEKTO BATEN KONTRATAZIOA   |



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009  
Data: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2



|     |  |
|-----|--|
| 784 | ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 785 | AINZINATASUNA ETA HIRUHILABETEKOEK ATZERAPENAK   |
| 786 | GRUPO ELEKTROGENOEN MANTENTZEA 2024  |
| 787 | BAKE EPAITEGIKO PERTSIANAREN KONPONKETA  |
| 788 | ERRATZ MAKINETARAKO 32 ZEPILLUEN HORNIDURA   |
| 789 | KALE GARBIKETARAKO PALEN HORNIDURA (18 PALA)   |
| 790 | IGERILEKURAKO MATERIALA EROSTEA  |
| 791 | URETAKO IKASTAROAK EMATEKO MATERIAL ESKARIA  |
| 792 | 24/036 OBRA LIZENTZIA ESKARIA  |
| 793 | ALDE ZAHARREKO BAIMENA IBILGAILU ALDAKETA  |
| 794 | OINEZKO GUNEKO BAIMENDUA   |
| 795 | ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 796 | ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 797 | ETXEBIZITZA TASATUA SALTZEKO BAIMENA   |
| 798 | BIZTANLE ERROLDA OFIZIOZKO BAJAK. MARTXOA 2023   |
| 799 | SASTAR BATZE GIDARIAREN ORDEZKAPENA. J.E., 2024KO URTARRILAREN 29TIK OTSAILAREN 2RA            |
| 800 | SASTAR BATZE GIDARIAREN ORDEZKAPENA. I.J.-REN BAJA   |
| 801 | ERAIKIN GARBITZAILEAREN ORDEZKAPENA. E.B. EZKONTZA LIZENTZIA. OTSAILAREN 23TIK MARTXOAREN 13RA |
| 802 | SASTAR BATZE GIDARIAREN ORDEZKAPENA. J.E. BAJA OTSAILAREN 12TIK                                |
| 803 | KALE GARBIKETAKO PEOIAREN ORDEZKAPENA A.Z. OTSAILAREN 12TIK 14RA                               |
| 804 | KALE GARBIKETA LANGILEEN ORDEZKAPENA_A.M.-J.J. OTSAILAREN 12TIK 18RA                           |
| 805 | ERAIKINEN GARBITZAILEAREN ORDEZKAPENA_B.G. BAJA OTRAILAREN 7TIK 9RA                            |
| 806 | KALE GARBIKETA GIDARIAREN ORDEZKAPENA. J.B. BAJA OTSAILAREN 10ETIK                             |
| 807 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 808 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 809 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 810 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 811 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 812 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 813 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 814 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 815 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |
| 816 | OTSAILEKO NOMINAN ZORREN KONPENTSAZIOA   |



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/03/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2024 12:30:15

DOCUMENTO: 20240993009

Datea: 25/03/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F26F100C1J4Q1D9Z0C2





817 BIZTANLE ERROLDA OFIZIOZKO BAJAK URTARRILA, OTSAILA, (BERRIZ HASITA EPEA PASATA)

818 2024. URTEKO KONTRATAZIO PLANA ONARTZEKO ERABAKIA

819 ERAIKINEN GARBITZAILEAREN ORDEZKAPENA\_J. R.

820 BERDINTASUN IHES GELA + DJ TAILERRA

821 ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO TALDE TEKNIKOA

822 KREDITU ALDAKUNTZAK: TXERTAKETA AFEKTATUA: 1.507.975,40€

823 OFIZIOZKO BAJA ESPEDIENTEAK. EKAINA, UZTAILA

824 BERMEAREN ITZULKETA. BERBALAGUN EGITASMOA GARATZEKO ZERBITZUA

825 HILERRIRAKO OFIZIAL BATEN KONTRATAZIOA

826 AUTOA EZINDUENTZAKO APARKALEKUAN UZTEKO IRIZPEN ESKARIA

827 2023 260 FAKTUREN ERLAZIOA

828 24/037 OBRA LIZENTZIA ESKARIA

829 24/035 OBRA LIZENTZIA ESKARIA

830 24/034 OBRA LIZENTZIA ESKARIA

831 2024/30 ERLAZIOAREN ORDAINKETA

832 2023-0001873 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

833 2023-0002118 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

834 2023-0002180 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

835 LANDABASO BILTEGIKO IBILGAILU ELEKTRIKOEN ERREKARGA PUNTUAREN HASIERAKO IKUSKAPENA.

836 2024-0000120 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

837 2024-0000117 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

838 2024-0000116 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

839 2024-0000119 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

840 2024-0000115 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

841 2024-0000112 TRAFIKO LEGEDIA URRATZEAGAITIK ESPEDIENTEA ZABALTZEA

